



Kaixo, kaixo:

Zer moduz arí zarete hor behean?

Honezkeró jakingo duzue zer egingo duzuen hemendik aurrera, ezta? Kantatu, dantzatu, jolastu, ikasi! Eta beti lagunekin!

Ez pentsa! Nik ere, nahiz eta hemen goian bízi, baditut lagunak hor behean. Zeintzuk dira zuen lagunak? Beno, seguru izugarri maite dituzuela, nik Iratí eta Beñat bezala. Bai, nire lagunak Beñat eta Iratí dira, eta oso jatorrak dira. Beharbada ezagutuko dituzue, izan ere, hor ibiltzen dira parkean jolasean eta kalean gora eta behera.

Hauexek dira nire lagun Beñat eta Iratí:

0. LORENTXO ETA BERE LAGUNAK

LORENTXO BERE
LAGUNAK AURKEZTEN

Mutil alai hau BEÑAT GARAI da.

Beñatek zortzi (8) urte ditu.

Beñat Arrasatekoa da.

Beñat Arrasaten bizia da.

A! Eta Iratiren anaia da.



0. LORENTXO ETA BERE LAGUNAK

LORENTXO BERE
LAGUNAK AURKEZTEN



Neskatila bihurri hau IRATI GARAI da.

Iratik zazpi (7) urte ditu.

Iratí Arrasatekoa da.

Iratí Arrasaten bizi da.

A! Eta Beñaten arreba da.

Ene, ene, ene! Nire lagun iletsua ahaztu zait! Bai, bai. Beñat eta Iratiz gain, badut beste lagun bat ere. Argi dauka izena eta oso iletsua da. Gainera, lau hanka dauzka. Ondo entzun duzue, bai, lau hanka dauzka eta buztana ere bai. Eta Beñatekin eta Iratirekin bizi da. Hauxe da nire lagun Argi:



Hau ARGI da.

Ardi-txakurra da. Ilea luzea eta zurizka du eta ia ez zaizkio begiak ikusten.

Oso mugitua da eta ez du zaunkarik egiten.

Beñat eta Iratirekin bizi da etxean eta denen artean zaintzen dute. Beñat eta Iratirekin oso gustura ibiltzen da jolasean.